

Seme-alaben sexu-hezkuntza bideratzeko jarraibideak

Sexualitatea funtzio naturala da, zintzotasunez eta maitasunez tratatu behar dena, eta haurraren heziketa prozesuan txertatu beharrekoa.

Lehenengo etapetan garrantzitsua da:

- Beti egia esatea, gezurretan ez aritzea edota istoriorik ez asmatzea.
- Gauzak diren bezala azaltzea (gauzak bere izenez deitzea), gaiaren inguruan zalantzarik ez sortzeko.
- Seme-alabak zuekin sexuaz hitz egin nahi dutenean, bidea erraztea.
- Sexualitatea maitasunarekin lotu eta estimua, eskuzabaltasuna eta erantzukizuna ere inplikatzeko dituela azaldu.

Garrantzitsua da, baita ere, laztanak, kontaktu fisikoa, maitasuna eta xamurtasuna beharrezko elementuak direla gogoraraztea eta, nola ez, norberaren gorputza ezagutzea:

- 2 urte bete aurretik, gorputza aztertzen eta ezagutzen hasten da haurra. Gurasoak gorputz atalak izendatuz lagun diezaiokeete eginkizun horretan. Horretarako egunean ematen diren zenbait egoera aprobeztatu daitezke: komunean, arropa aldatzen diozuenean, panpinekin jolasten duenean...
- 3-5 urte dituztenean, kontziente dira neska eta mutilen arteko desberdintasunez. Hori dela eta, mota honetako galderak egiten hasten dira: “zergatik nire arreba ez dauka “pitilnik”, nik bezala...?” egoera horretan, funtsezkoa da naturaltasunez erantzutea, inolako gezurrik asmatu gabe. Esaterako, animalia ar eta emeen arteko desberdintasunak azalduz erantzun ahal zaie.
- 5 eta 8 urte bitartean, mutiltxoak ez dira hain kuxkuxeroak. Neskatilei aldiz, jakin-mina sortzen zaie mutilen eta nesken gorputzen arteko desberdintasunen aurrean, baina ez horrenbeste sexualitatearen aurrean. Hala ere, neskatilak, sexualitateari buruzko interesa azaltzen dutenean helduek besarkada eta laztanen bidez adierazten dutela euren maitasuna azaldu ahal zaie. Ohikoa izaten da, adin hauetan, haurrak nondik datozen galdetzea. Galdera horren erantzun modura, momentuz, amaren barnealdeko toki berezi batean sortzen den hazi bat dela esan diezaiokezue, eta haurtxo hori hasten dela aitaren haziarekin bat egiten duenean.
- Gerta daiteke, 8 urtekin, haurrak prozesu honi buruzko informazio gehiago nahi izatea. Orduan gurasoek hitz egin ahal izango diote, nola aitaren zakiletik datorren haziak (edo espermatozoidea), amaren uteroan dagoen haziarekin (edo arrautzarekin) bat egiten duela. Jarraian, haurtxoa amaren uteroan hasten dela 9 hilabetez jaiotzeko indartsu dagoen arte.

- 11 urtetik aurrera azaldu ahal zaie bi pertsona elkarrekin maitemindu daitezkeela eta egoera horretan harreman sexualak izateaz edo ez izateaz hartzen duten erabakiaz.
- Nerabezaroan, sexuaz hitz egiteko giro atsegina sortu bada, gurasoak maitasunaz, arriskurik gabeko harreman sexualez eta intimitatearekiko eta pertsonarekiko errespetuaz mintzatu daitezke seme-alabekin.

LABURBILDUZ:

Seme-alabekin sexuaz hitz egiterakoan, pertsona bezala identifikatzen laguntzen diegu eta baita euren etorkizuneko jokaera sexuala hobeto ezagutu dezaten ere. Seme-alabekin sexualitateaz hitz egiteko momentu egokia haiek gaiarekin erlazionatutako galderak egiten hasten direnean izaten da.

Ainhoa Manzano Fernández Doktorea
Juan Luis Martín Ayala Doktorea
ETXADI
Familia-Psikologia Unibertsitate-Zentroa
Centro Universitario de Psicología de la Familia